Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 1a, asteazkena — 122 — Miércoles, a 1 de julio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## IRURAKO UDALA

*Eskola materiala erosteko dirulaguntzak emateko udal ordenantzaren behin betiko onarpena.*

2025eko urriaren 28ko Udalbatzak «Eskolako materiala erosteko dirulaguntzak emateko udal ordenantza»ri hasierako onespena eman ziolarik, espedientea jendaurrean jarri zen 2025eko azaroaren 7tik abenduaren 22ra.

Aipatutako epean inolako erreklamaziorik eta oharpenik jaso ez denez, behin betikoz onartutzat jotzen da eta testu osoa argitaratzen da, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoa beteaz, 65.2. artikuluan ezarritako epea burutzen denean.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

Irura, 2026ko ekainaren 16a.—Gorka Murua Macuso, alkatea. (4142)

*Eskolako materiala erosteko dirulaguntzak emateko Udal Ordenantza.*

### IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. *Dirulaguntzaren xedea.*

Araudi honen helburua, Irurako Udalerrian bertako edo inguruko ikastetxeetan, LHn edo DBHn matrikulatutako ikasleen familiei eskolako material gastuetarako dirulaguntzak arautzea da. Dirulaguntza jasoko duten familiek ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

*1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea.*

Dirulaguntza honen xedea da Irurako Udalerrian bertako edo inguruko eskoletan LH eta DBHn dauden ikasleen familiei eskolako materialerako dirulaguntza ematea, herritarren artean desberdintasunik sor ez daitezen eta gizarteratzea bultzatzeko. Horregatik, Irurako Udalak dirulaguntzak emango dizkie tokiko edo inguruko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen familiei, dagokien ikasturtean eta hurrengo urteetan, ordenantza hau ukatu edo aldatzen ez bada.

*2. artikulua. Onuradun izateko baldintzak.*

1. Iruran erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera aurkezten denean.

2. Irurako edo inguruko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea hasiko den ikastaroan.

## AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Aprobación definitiva de la ordenanza municipal para la concesión de subvenciones para la adquisición de material escolar.*

Aprobada inicialmente por el Pleno de 28 de octubre de 2025 la «Ordenanza municipal para la concesión de subvenciones para la adquisición de material escolar», el expediente fue sometido a información pública por un plazo de 30 días, desde 7 de noviembre hasta el 22 de diciembre de 2025.

No habiéndose recibido ninguna reclamación ni observación en el citado plazo, se da por aprobado definitivamente y se procede a la publicación del texto íntegro, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local, una vez transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Irura, a 16 de junio de 2026.—El alcalde, Gorka Murua Macuso. (4142)

*Ordenanza Municipal para la concesión de subvenciones para la adquisición de material escolar.*

### DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

1. *Objeto de la subvención.*

El objeto de esta normativa es regular las ayudas económicas para los gastos de material escolar a las familias del alumnado matriculado en el municipio de Irura en centros escolares propios o de su entorno, educación primaria o ESO. Las familias beneficiarias deberán cumplir los requisitos que se establecen en los artículos siguientes.

*Artículo 1. Objeto de la subvención.*

El objeto de esta subvención es subvencionar el material escolar a las familias del alumnado de educación primaria y ESO de las escuelas del municipio de Irura o de su entorno, con el fin de evitar desigualdades entre la población y favorecer su integración social. Por ello, el Ayuntamiento de Irura concederá subvenciones a las familias del alumnado matriculado en centros escolares locales o de la zona durante el curso correspondiente y los años siguientes, en el caso de que no se deniegue o modifique esta ordenanza.

*Artículo 2. Requisitos para ser beneficiario.*

1. Estar empadronado y tener la residencia en Irura en el momento de presentar la solicitud.

2. Estar matriculado en Irura o en algún centro de la zona en el curso que se va a iniciar.

EK\CV GAO-I-2026-04142

3. Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.

4. 4. artikuluan zehazten den diru-sarrera kopuruak ez gainditzea.

3. artikuluan sartzen diren eskola materialak:

a. Idazmahaiko materiala eta suntsikorrak: arkatzak, boligrafoak, ezabagailuak, klipak, zorrozgailuak, erregelak, eskuairak, kartaboiak, garraiogailuak, rotrinak, koadernoak, folioak.

b. Material ez suntsikorrak: karpetak, sailkagailuak, artxibagailua, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, eskolako motxilak, orri-bereizgarriak.

*4. artikulua. Dirulaguntzak zehazteko irizpideak.*

Irurako edo inguruko ikastetxe batean matrikulatuta dituzten ikasleen familiek dirulaguntza jaso ahal izateko, ondorengo irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Familien, aurreko urteko errenta aitorpeneko «osagai positiboak guztira» atalean agertzen den kopurua hartuko da kontuan, salbuetsiak daudenak zuzenean onartu egingo zaie dirulaguntza gehieneko kopuruan, aurkeztu beharra eta aurkeztu ez dutenei dirulaguntza ukatu egingo zaie. Interesdunaren baimenarekin udalak konproba ditzake datu hauek.

Familia unitatetzat, ikaslearen guraso eta anai-arrebak hartuko dira.

Familia batek ikasle bat baino gehiagoren eskaera egin nahi badu, eskaera bakarra egingo du ikasle kopurua eta izenak jarriz.

Diru-sarrerak eta laguntza kopuruak:

— LGI 1,6 aldiz bitartekoak: gehienez 110 €.

— LGI 2,1 aldiz bitartekoak: gehienez 90 €.

— LGI 2,6 aldiz bitartekoak: gehienez 50 €.

— LGI 2,6 aldiz baino gehiagokoak: ez dute laguntzarik jasoko.

*5. artikulua. Eskaerak eta dokumentazioa.*

1. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea dutela uste duten familiek, udaletxean aurkeztu beharko dute eskaera, ondorengo agiri hauekin batera:

— Ikaslea, Irurako edo inguruko ikastetxe batean matrikulatuta dagoela adierazten duen agiria.

— Eskatzailearen kontu korrontea eta titulartasuna adierazten duen bankuko agiria.

— Uztailaren 1etik irailaren 30eko tartean egindako eskola materialeko gastuen fakturak edo tiketak, betiere, erositako produktuak zehaztuak agertzen badira.

— Eskatzaileak baimentzen badu, NAN/AIZ, errolda eta errenta aitorpena Udalak egiaztatuko ditu Nisae edo uneko plataformaren bidez, bestela eskatzaileak aurkeztu beharko ditu.

Urteko deialdian zehaztuko da eskaerak aurkezteko epea.

2. Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

Eskaera onartu ondoren, Udalak beharrezkoak dituen agiri edo argibide guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. No hallarse incursa en prohibición alguna que la inhabilite para ello. Estas prohibiciones serán las establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre.

4. No superar los ingresos que se especifican en el artículo 4.

Materiales escolares incluidos en el artículo 3:

a) Material de escritorio y fungibles: lápices, bolígrafos, borradores, clips, afiladores, reglas, escuadras, cartabones, transportadores, rotrinas, cuadernos, folios.

b) Materiales no fungibles: carpetas, clasificadores, archivador, estuches, calculadoras, compases, mochilas escolares, características de página.

*Artículo 4. Criterios para la determinación de las subvenciones.*

Para que las familias de los alumnos y alumnas matriculados en un centro de Irura o de su entorno puedan acceder a la subvención se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Se tendrá en cuenta la cantidad que figure en el apartado «Total componentes positivos» de la declaración de la renta del año anterior de las familias, las exentas se les reconocerá directamente la cantidad máxima de subvenciones; teniendo obligación si no se ha presentado la declaración de la renta, se denegará la subvención. Estos datos podrán ser comprobados por el Ayuntamiento con el consentimiento de la persona interesada.

Se considera unidad familiar a los padres y hermanos del alumno o alumna.

Si una familia desea solicitar más de un alumno, sólo hará una solicitud indicando número de alumnos y nombres.

Ingresos y número de ayudas:

— 1,6 veces el SMI: hasta 110 €.

— SMI hasta 2,1 veces: hasta 90 €.

— SMI hasta 2,6 veces: hasta 50 €.

— Más de 2,6 veces el SMI: no serán objeto de ayuda.

*Artículo 5. Solicitudes y documentación.*

1. Las familias que se consideren con derecho a subvención deberán presentar su solicitud en el Ayuntamiento, acompañada de la siguiente documentación:

— Documento en el que conste que el alumno está matriculado en un centro de Irura o de la zona.

— Cuenta corriente del solicitante y documento bancario en el que conste su titularidad.

— Facturas o tickets de los gastos de material escolar realizados entre el 1 de julio y el 30 de septiembre, siempre que figuren detallados los productos adquiridos.

— Si la persona solicitante lo autoriza, el DNI/NIE, el padrón y la declaración de la renta serán acreditados por el Ayuntamiento a través de Nisae o plataforma actual, en caso contrario deberán ser aportados por la persona solicitante.

El plazo de presentación de solicitudes se determinará en la convocatoria anual.

2. Cuando se acredite que la documentación aportada por el solicitante es incompleta o no reúne los requisitos establecidos en las bases, se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose automáticamente de conformidad con la normativa vigente.

Una vez aceptada la solicitud, el Ayuntamiento podrá requerir cuanta documentación o aclaración considere necesaria.

EK\CV GAO-I-2026-04142

Jarduera baterako dirulaguntza eskaera aurkezte hutsak dirulaguntza arautzen duten oinarri hauen edukia ezagutzea eta onartzea dakar.

3. Urteko deialdiak zehaztuko ditu eskaerak aurkezteko epea eta beharrezko dokumentazioa. Deialdia alkatearen dekretuaren bidez onartuko da eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.*

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, dagokien txosten teknikoaren irizpideak jarraituz, alkatearen dekretuaren bidez erabakiko da.

*7. artikulua. Berariazko ebazpenik ez hartzea.*

Urriaren 1eko, 39/2015 legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 24. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorriz, dirulaguntza eskaerak ezetsi egingo dira baldin eta, eskaerak aurkezteko finkatutako epea amaitu eta 3 hilabeteko epean, berariazko ebazpenik hartu ez bada.

*8. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunek indarrean dagoen araudian ezarritako betebehar orokorrak bete beharko dituzte.

*9. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.*

Alkatetzaren Dekretu bidez dagokion erabakia hartu ostean, udalak ordainketa gauzatuko du.

*10. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.*

Onuradunak deialdi honetan aurreikusten diren baldintzetako bat ez betetzeak, dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Dirulaguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluak eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

*11. artikulua. Jarraipena.*

Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak laguntzen jarraipena egingo du, eta hobetzeko, egokitzeko edo eguneratzeko proposamenak egin ahal izango ditu.

*12. artikulua. Ordezko araudia.*

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailak 21eko 88/2006 Errege Dekretuaz onartutako Legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

*13. artikulua. Dirulaguntzetarako bideratutako kopurua.*

Dirulaguntzen deialdi hau gauzatzeko diru-hornidura urteko udal-aurrekontuan sartuta egongo da.

Bideratutako partidak eskari guztiei erantzuteko saldo nahikorik ez badu, udalak murrizketa bat aplikatu ahal izango du.

La mera presentación de una solicitud de subvención para una actividad supone el conocimiento y aprobación del contenido de las presentes bases reguladoras de la subvención.

3. La convocatoria anual determinará el plazo de presentación de solicitudes y la documentación necesaria. La convocatoria se aprobará mediante Decreto del Alcalde y se publicará en el Boletín Oficial correspondiente.

*Artículo 6. Instrucción del procedimiento.*

Presentada la documentación requerida y siguiendo los criterios del informe técnico correspondiente, se resolverá mediante Decreto de Alcaldía.

*Artículo 7. Falta de resolución expresa.*

De conformidad con lo previsto en el artículo 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención serán desestimadas si en el plazo de 3 meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes no se ha dictado resolución expresa.

*Artículo 8. Obligaciones de los beneficiarios.*

Los beneficiarios deberán cumplir las obligaciones generales establecidas en la normativa vigente.

*Artículo 9. Pago de la subvención.*

Una vez adoptado el acuerdo correspondiente mediante Decreto de Alcaldía, el Ayuntamiento hará efectivo el pago.

*Artículo 10. Incumplimiento de obligaciones.*

El incumplimiento por el beneficiario de cualquiera de las condiciones previstas en la presente convocatoria dará lugar a la extinción o disminución de la subvención. En todo caso, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa concordante.

*Artículo 11. Seguimiento.*

La Comisión Informativa de Servicios Sociales realizará un seguimiento de las ayudas y podrá realizar propuestas de mejora, adecuación o actualización.

*Artículo 12. Normativa supletoria.*

En todo lo no previsto en las presentes bases se estará a lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Públicas, en especial a lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el Reglamento aprobado por el Real Decreto 88/2006, de 21 de julio.

*Artículo 13. Cantidad destinada a subvenciones.*

La dotación económica destinada a la ejecución de esta convocatoria de subvenciones estará incluida en el presupuesto municipal anual.

En el caso de que la partida destinada no disponga de saldo suficiente para atender todas las demandas, el ayuntamiento podrá aplicar una reducción.